

Praga'tik 1956'gko Otsaillaren 20'ean.

20-2-1956

Tovar Andoni  
Ikastetxe-Nagusiko zuzendari jaunari

Salamanka'n.

Nere jaun guztiz agurgarria:

Euskerazko aldizkari batean irakurri dut orko Ikastetxe-Nagusiak Bouda ta Baumgart jaunak egindako liburuaren erderazko itzulpen bat argitaratu zuela. Liburu onek landareen euskal-ize-  
nez erabiltzen du.

Euskaltzale sutsua naizelarik, liburu au pozik nere idazti-  
tegian euki nai nuke. Zoritxarrez, ezin dezaket erosi, emendik  
Espainia ra dirua bialtzea debekaturik dagolako. Orra zergatik  
ausartzen naizen zu eskatzen niri ijeki bat bialtzeko. Emendik  
zerbait euki nai-badezu, idatzi zaidazu, eta berealaxe bialduko  
dizut. Aurrez eskerrik asko ematen dizkizut.

Onar itzazu, jaun guztiz agurgarria, itzal aundiko go-  
raintzia eta agindu nai duzun guzia zure menpeko:

Nere zuzenbidea:  
Norberto Tauer,  
Poste Centrale, Postbox 728,  
PRAGUE-1 /Tchécoslovaquie/

Tauer Norberta'ri.



VNIVERSIDAD  
DE SALAMANCA

GREDO.SAL.ES